



KUNPLITUEN HERRIAZ GEHIAGO JAKITEKO

Babarrunengatik da ezagun Albiztur, eta kunplituak bezala ezagutzen dituzte bertako herritarrak »4

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2009-01-28**

VILURTEA 1.614. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



«Patronalari presioa egiteko» elkarretaratzea egin zuten atzo goizean. I. GARCIA

LAN HITZARMEN HOBEA ALDARRIKATU DUTE SANTIAGOKO LANGILEEK

VILLABONA Elkarretaratzea egin zuten atzo langileek, patronala eta sindikatuak lan hitzarmenari buruz hitz egiten ari ziren bitartean »

Etzi hasiko da Uzturperen Kultur Astea

IBARRA Guraso nahiz seme-alabei zuzendutako ekitaldiak antolatu ditu herriko ikastolak »

Donostiako gaurko manifestaziora joateko deia egin du LABek

LAN ISTRIPUAK Sindikatuak lan istripuak salatzeke antolatu du; 112 hil ziren iaz »



Salmenta puntuak:
Tolosako
OSKI arropa denda
Leitzako
TORREA tabernan
eta HITZAren Tolosako
eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak
jertseak • fularrak
buffak...

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**



Euskal Kantu Liriko berriekin emanaldia, larunbatean

TOLOSA Santa Klaran izango da kontzertua; Sabino Lopez da ekimenaren sortzailea »



Eguraldi txarra izan arren, jai giroa zegoen atzo Leitzan. AIMAZ

Agur esan diete Ihoteei leitzarrek » 24

2-16 urte

bi urteko gela • juldutoka • ikastola

uzturpe

herrian hazi eta hezi

barnealdian kalitatezko heziketa euskalduna eskaintzen

ATEAK ZABALIK Emeterio Arresen

urtarrilak 29 osteguna, 18:00etan

© 2008 hitza. Tel. 943 871200. Fax 943 871202. hitza@hitza.net | www.hitza.net

Laburrak**'Rios y mareas' bihar ikusgai, Zine Forumean**

ZINEMA ■ Biharko Zine Forum saioan *Rios y mareas* filma izango da ikusgai Leidor aretoan. 19:15ean izango da lehendabiziko saioa eta 21:45ean bigarrena. Bestalde, as-teburuan ondorengo filmak eman-godituzte: etzi, 22:30ean *La ola* izango da; larunbatean, 17:00etan *Una amistad inolvidable*, 19:30ean *El intercambio* eta 22:30ean *La ola*; igandean, berriz, 17:00etan *Una amistad inolvidable* izango da ikusgai eta 19:30ean eta 22:00etan *El intercambio*; astelehenean, bestalde, ikuslearen eguna izaki, *El intercambio* filma emango dute 20:30ean.

Kristau Eskoletako haurren gurasoekin topaketa

ERLUIJOA ■ Larunbat honetan katekesiko eta Kristau Eskoletako haurren gurasoekin elkarketa edo topaketa izango da Joan Maria Uriarte Gotzainarekin. Hirukide-Jesuitinen ikastetxean izango da, 16:30ean hasita. Begiraleak eta katekistak egongo dira haurrak zaintzeko. Bestalde, larunbatean eta igandean eukaristia guztietan oitutz berezia izango dute Elizbarrutiko parrokia guztietan bakearen alde. Modu horretan, Kristau Eskoletan egiten ari diren Bakearen Astearekin bat egiten dutela azaldu dute.

Didgeridoo soinu tresnari buruzko ikastaroa

MUSIKA ■ Nafarroako Aurrezki Kutzan (Rondilla, Triangulo) bihar, 17:30ean hasita, didgeridoo soinu tresna aborigen australiarra ikasteko aukera izango da. Iban Nikolai irakasleak emango du ikastaroa doan.

Karrozak eta konpartsetan izena emateko aukera

JAIAK ■ Aurtengo Inauterietarako egun gutxi geratzen dira, eta pres-taketetan ari dira dagoeneko herri-arte gehienak. Bada, Inauterietarako karroza eta konpartsetan izena emateko aukera zabalik dago. Kultur Etxean egin ahal da, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.



Sabino Lopez Guereño, ekimenaren sortzailea eta Alberto Nuñez tenorea. LUIS JAUREGALTZO/ARGAZKI PRESS-HITZA

Euskal kantu liriko berriak ezagutzeko aukera polita

Musika ■ Larunbatean izango da kontzertua, Santa Klara elizan; Sabino Lopez Guereño bizkaitarrak sortu zuen ekimena, 2003an.

ERREDAKZIOA

Emanaldi bereziaz gozatzeko aukera izango da larunbat honetan, Santa Klara elizan. Hain zuzen ere, SGAEk antolatuta, *Euskal Kantu Liriko Berriak* proiektuaren saioa eskainiko dute, 20:00etatik aurrera.

Euskaldunentzat ahozko musika oso garrantzitsua izan da betidanik, eta hori aintzat hartuta ekin zion Sabino Lopez Guereño proiektu honi 2003. urtean. Izan ere, proiektuaren helburua, «kantu liriko berriak bildu eta ezagutaraztea da, mota ezberdinetakoak eta gaur egungo musikagileenak». Guereño azaldu bezala, «oraindik antzinako bildumetan jarraitzen dugu, ez baititugu aspaldian kantu liriko berriak sortu». Horregatik, hutsune hori betetze aldera, ekin zion ekimen berezi honi.

Hala, duela 5 urte hasi zirenetik, 30 abesti baino gehiago sortu dituzte, eta 32 kantaldi edo errezitaldi eskaini dituzte. Bizkaian gehienak; «azken urtean hasi gara Gipuzkoara zabaltzen, baina gure helburua, hemen gure abestiak ezagutarazteaz gain, atzerrian ere erakustea da, hau da, gure mugeta-

tik kanpo, kalitatea eta kantitatea badugu-eta horretarako», azal-tzen du proiektuaren sortzaileak.

Ateak zabalik

Guereño adierazi bezala, proiektua zabalik dago, «alor honetan parte hartu nahi duen ororentzat». Ganbara orkestrarekin edota abeslari eta piano-jotzaileekin, bi eratara eskaintzen dituzte emanaldiak. Hala, hiru bertsolariaren parte hartzea izan dute, hamar abeslari ari dira parte hartzen eta hiru piano-jotzaile, ganbara orkestra bat eta hiru moldatzaile baita ere. Halaber, abestiak moldatzekoan musikagileen laguntza izan dute, eta hori oso garrantzitsua dela aipatzen du Guereñoak.

Musikarekin lotuta

Ingenieritza ikasi duen arren, txikitatik izan du Sabino Lopez Guereño musikarekiko lotura. «Aitak kantatzen ikasi nuela hitz egiten ikasi aurretik zioen, beraz, pentsa». Bibolina ikasi zuen gaztetan, besteak beste, eta euskal kulturarekin loturiko lanak egin ditu. Azken urteetan denboragehiago izan duenez, berriro ere musikari, hain justu kantu melodikoari eskaintzea erebaki du.

Tolosakoan abesti berri baten estreinaldia

Marta Velasco mezzosopranoak, Alberto Nuñez tenoreak eta Juan Jose Ortega piano-jotzaileak hartzen dute parte larunbateko emanaldian. 14 abestiz osaturiko egitaraua izango da, horietatik 4-5 abesti zaharrak eta gainerakoak berriak. Gainera, abesti berri bat ere estreinatuko dute, *Samurtasuna bihotzetan* izenekoa, hain zuzen ere.

» EGITARAUA**Lehenengo zatia:**

- *Maitatzeko astirik gabe*: B. Onzain eta Marta Velasco.
- *Nere etorrera*: J. M. Iparragirre eta Alberto Nuñez.
- *Xarmegarria zira*: Marta Velasco eta A. Donostia (piano laguntza).
- *Kanta bizitzari*: J. Ezkurra eta Alberto Nuñez.
- *Sustraiak*: J. Ezkurra eta Marta Velasco.
- *Eguzkia*: S. L. Guereño eta Alberto Nuñez eta C. Castaños (Piano laguntza).
- *Maitasun oihartzuna*: J. M. Beobide eta Marta Velasco.

Bigarren zatia:

- *Seaska kantu bi*: S. L. Guereño.
- *Izar bari*: G. Aguinaga (piano laguntza).
- *Ai, kutuna!*: Mikel N' Dong (piano laguntza) eta Marta Velasco.
- *Kantu liriko bi*: S. L. Guereño.
- *Goizean goi*: M. N' Dong (piano laguntza).
- *Samurtasuna bihotzetan*: J. J. Ortega (piano laguntza) eta Alberto Nuñez.
- *Itsasgizona*: B. Onzain eta Alberto Nuñez.
- *Itsasertzean zutik*: J. Ezkurra eta Marta Velasco.
- *Finlandesen kantua*: J. M. Beobide eta Alberto Nuñez.

Asis Sareak bihar egingo du hirugarren otoitzaldi-bilkura

Erljioa ■ 19:30ean izango da Klarisen elizan; sortu zenetik 700dik gora lagunek hartu dute parte Asis sarean.

ERREDAKZIOA

Azaroaz geroztik Arantzazuko Frantziskotar Probintziaren 10 herrietan ospatzen ari dira Asis Sarearen hileroko otoitzaldiak: Donostia, Bilbo, Gasteiz, Iruñea, Zarautz, Tolosa, Gernika, Bermeo, Beasain eta Zegaman, hain zuzen. Herri horietan, dagoeneko sarean izena eman duten 700dik gora lagunek hartu zuten parte. Asis Sarearen helburua «irekitzea da eta herrietara, taldeengana eta pertsonengana zabaltzen jarraitzea». Hala, Tolosan egingo duten hirugarren otoitzaldi-bilkura biharko deitu dute. Hau 19:30ean izango da, Klarisen Elizan.

Urriaren 25ean, Asisko Espirituaren egunean, sortu zen Asis Sarea Arantzazun, beren eguneroko bizimoduaren frantziskotarren espiritualtasuna ezagutu, partekatu edo bultzatu nahi duten laikoaren sare irekia. Bultzatzaileek, laikoaren eta frantziskotarren talde batek, «gizakiak bere alderdi espiritual berreskuratu beharra daukanaren uestea eta frantziskotarren espiritualtasunak ekarpenik egin dezakeneren intuizioa» konpartitu nahi dute.

Informazioa jaso nahi duenak 646 21 48 96 zenbakira deitu edota asissarea@arantzazu.org-era idatz dezake.

Emakumezkoen II. Pilota Txapelketako finalak Beotibarren

Pilota ■ Igande honetan hasiko dira partidak; finalak martxoaren 1ean jokatuko dituzte Beotibar frontoian.

ERREDAKZIOA

Igande honetan, otsailaren 1ean, hasiko da Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak eta DVk antolatutako Emakumezkoen II. DV Saria. Bertan, 12 pilotari onenek hartuko dute parte.

Txapelketaren lehen partidak igande honetan jokatuko dituzte, Donostiako Egiako pilotalekuan. Finalak dagokionez, martxoaren 1ean jokatuko dituzte, Beotibar pilotalekuan.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Santiago Egoitzaren aurrean egin zuten atzo elkarretaratzea langileek. I. GARCIA

Santiago egoitzako langileek lan hitzarmena hobetzea eskatu dute

Villabona » Elkarretaratzea egin zuten atzo goizean, patronala eta sindikatuak lan hitzarmenari buruz hitz egiten ari zirela.

IMANOL GARCIA

Villabonako Santiago adinekoen egoitzaren langileek elkarretaratzea egin zuten atzo goizean patronalari presioa egiteko. Izan ere, atzo patronala eta sindikatuak sektoreko lan-hitzarmenaren inguruan hitz egiten ari ziren. Santiago egoitzako langileek negoziazioari ekiteko eta Foru Aldundiaren baitan dauden sektoreko langileen lan baldintzak berdinak izatea eskatzen zuten.

ELA sindikatutik adierazi dutenez, aurreko bileran patronalak ezezkia eman zion lan-hitzarmena aldatzeari. Horren aurrean, ELAtik hitzarmenean ondorengo puntutaz hitz egiteko eskatzen dute: «Oinarritzko soldata, baja

osagarrien subrogazioa, lanegunaren murrizketa, lana egindako igandearen plusa eta urteko egutegia». Sindikatutik ere salatzen dute patronaletik «izugarrizko» lan-hitzarmena dutela eta «soldata duina dugula» esan dutela.

Langileek gaineratu dutenez, «balio gutxiko lan hitzarmenari jarraipena eman nahi diote» eta sektorea «oso gaizki dago». Patronalaren eta sindikatuen artean atzoko bileran gertatukoaren zain egongo direla azaldu dute langileek eta horren arabera eta aurrera begira «ekintzak antolatuko» dituztela diote.

Villabonan negoziaketan hasita

Santiago egoitzako langileez gain, Gipuzkoako beste hainbat egoitzetan ere elkarretaratzeak egin dituzte. Halere, hainbat egoitzetan lan hitzarmenak ari dira negoziatzen langileak. Villabonakoa da horietako bat. «Santiago egoitzaren kasuan», azaldu dute ELAtik,

«negoziaketan hasita gaude orain gutxi egoitzako kudeaketa hartu duen enpresarekin». Hala ere, sindikatutik gaineratu dute, enpresa hori zain dagoela patronala eta sindikatuen artean erabakitzen dutenari buruz zenbait puntu garrantzitsu adosteko, oinarritzko soldata esaterako. Beste hainbat egoitzetan lan hitzarmenaren negoziazioa eten egin da.

Lan hitzarmenaren puntu garrantzitsuenetako bat administrazioaren baitan dauden sektoreko langileen parekotasuna epe jakin batean lortzea da. Foru Aldundiaren baitan dauden langileek bikoitza jasotzen dute lan berdina egiteagatik.

Egun 25 langile daude, denak emakumezkoak, Santiago Egoitzan lan egiten. Villabonako Udalaren eskumena da egoitza eta hiru urterako Residencia Geriatrica de Cataluña enpresak kudeatuko du. Enpresa honek Gipuzkoan kudeatzen duen adinekoen egoitza bakarra da Villabonakoa.



Jesusen Bihotza Ikastolako ordezkariak diplomarekin. HITZA

Jesusen Bihotzari Bikaintasunarekin Konpromiso Diploma

Villabona-Zizurkil

Ikastolak lau urte daramatza EFQM/EKKS kalitate sistema bere kudeaketarako erabiltzen.

ERREDAKZIOA

Villabona eta Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolak Bikaintasunaren Konpromiso Diploma jaso berri du. Hain justu, urtarrilaren 15ean Bikaintasunarekin Konpromiso Diplomen banaketa ekitaldia izan zen Bilboko Euskalduna Jaurerria eta bertan 230 pertsona bildu ziren.

Jesusen Bihotza Ikastolak lau urte daramatza EFQM/EKKS kalitate sistema bere kudeaketarako erabiltzen eta hori izan da diploma jasotzearen arrazoia. Diplomen banaketa ekitaldian, Jose Luis Lafuentek, Euskaliteko lehendakariaren ordezkari bezala, 2008an Euskaliteko kanpo kontrastea gaingitu zuten sektore desberdinetako 52 erakunderi diplomak banatu zizkien. Hain zuzen, bederatzik industria enpresa, hiru ospitale, hamabi zerbitzu erakunde eta hogeita zortzi hezkuntza zentrok diploma jaso zuten. Azke horien artean, esan bezala, Jesusen Bihotza Ikastola.

Laburrak

Musika Tailerra martxan jarriko dute otsailen

ALKIZA » Musika Tailerra martxan jarriko dute Alkizan. Tailer horren hasiera otsailaren 6an, ostegunarekin, izango da. Saioa 17:00etan hasiko da eta Kultur Etxean izango dira klaseak. Izena lehenbailehen emateko aholkatzen dute Aiztondoko Zerbitzuen Mankomunitateak, 943 69 39 30 telefono zenbakira deituz.

Euskarzako webguneei laguntzak Udaletik

VILLABONA » Aurten ere Villabonako Udalak euskarzako webguneetarako diru laguntzak emango ditu. Otsailaren 27an bukatzen da eskaera aurkezteko epea. Jada osatuta dauden webguneetara zuzenduko ditu diru laguntzak. Euskarazko hutsezko webgune edo euskarazko lehenesten dutenei lehentasuna emango die.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Albizturko lehen aipamen idatzia 1384. urtekoa da; orduan Tolosara batu egin zen. Babarrun oso onak jasotzen dituzte eta arrazoi nagusia lurraren ezaugarriak dira. Kunplituak deitzen diete...

Babarrunaren herriaz...

ERREDAKZIOA

Albiztur herriak bere ospea hasiera batean babarrun beltzari zor dio. Herri honen lehen aipamen idatzia 1384. urtekoa da, dokumentu horretan eta baldintza batzuen pean, Tolosara batzen dela aipatzen zen. 1617ko apirilaren 2an, Felipe III.ak hiribildu izaera eman zion baina horretarako diru bat ordaindu behar izan zuen eta elizari eskatu behar izan zion.

1651. urtetik Saiazko alkatetzako kidea zen. Albizturtekin batera Aia, Laurgain, Urdaneta, Alzola, Beizama, Bidania, Errezil eta Goiatz zeuden.

Bertatik errege bidea igarotzen zen eta horregatik eraikin bereziak izan zituen garai batean: erromesentzako bi ospitale, bi ostatu eta lau errota.

Herri txikia da Albiztur: kontuak kontu, XIX. mendetik XX. mendera arte Hego Ameriketara emigratu zuten hainbat albizturta- rrek lan bila eta honek 140 urtetan 500 biztanle baino gehiagoren galera ekarri zuen. Biztanleria gaur egun, gutxituz joan da azkenengo urteetan eta honi dagokionez, Hego Ameriketarako emigratioak min handia egin zion. Baina azken urte hauetan Albizturko biztanleak mantentzen, egonkortzen ari direla dirudi.

Babarrun beltzak Albizturren

Albizturko babarrun beltzek amerikar jatorria daukate. Belaunaldi belaunaldi landatu ohi izan dira herriko soro eta baratzetan, uzta oparora eskainiz. Iraila eta urri aldera herrira joanez gero, laster ikusten dira artasoroak babarrun lekaz beteta. Dirudienaz, kareharrien eraginez soroetako lurrak aberastu eta ezaugarri bereziak dituzten babarrunak lortzen dira he-

rri honetan. Ohikoa da Tolosako Babarrun Ekoizleen Txapelketako txapeladun asko bertakoak izatea.

Albiztur oso menditsua da baina aldi berean lurrak emankorrak dira, larre on, ur kantitate handia eta zuhaitz askorekin. Kareharrizko San Anton harrobia ere nabarmendu beharrekoa da. Gaur egun lan egiten dute oraindik.

Hala ere, esan daiteke biztanle gehienek industrian eta Tolosako zerbitzuetan lan egiten dutela.

Intereseko leku-eraikinak

XVII. mende hasieran herriko parrokia eraikitzen hasi ziren, antzinako eliza baten hondarren gainean, hain zuzen. XVIII. mende bukaeran teilatua behera erori zenez eta eliza berreraiki behar izan zuten. Argisaingo Santa Marina eliza erromanikoa ere dute. Auzo horretan dagoen Santa Marina Haundi baserria ere aipatzekoa da, garai batean erromesen ospitaleetako bat hori izan baitzen. San Gregorio baseliza ere badute, XVI. mendean bukaera egindakoa.

Mendikuteko gotorlekua XII. mendean kokatzen da. Mendian gora egin eta erromatarren garaiak gaur arteko aztarnak ikus daitezke. Horien artean, Erdi Aroko gaztelu baten eta erromatarren garaiko galtzadaren arrastoak. XIV. mendean berregituratu eta ez zuten gehiago babestoki gisa erabili.

Gerora, Espainiako Gerra Zibila gertatu zenean zelatariak Mendikuteko gazteluan jartzen ziren, Espainiako errepublikarren aurka matxinatu zirenen hegazkinen etorrera jakinarazteko. Inguruan gerra garaiko armak eta balak aurkitu dituzte.

Erdi Aroko kutsua gordetzen duen baserriak ere badago Albizturten. Horien artean, Errekalde



Albizturko plaza duela 21 urte irudian. Inguruan frontoia, ikastetxea eliza eta udaletxea ditu. HITZA

(Alfaro baserriaren ondoan, erdigunean). Urrutume baserria, esaterako, Kultura Ondasun gisa monumentu izendapena du.

Albizturkoak, kunplituak

Kunplituak omen dira Albizturkoak: hori da egokitu zaien ezizena. Batzuentzat gustukoa eta beste batzuentzat ez oso polita. Kontua da, ez duela herriko inork honen jatorria ematerik izan eta liburuetan topatzea ez da erraza. 100 urte gutxienez dituela behintzat, jakina da, bertako biztanleek hala baitakite. Gehiago ikertu behar...



Harritzko garbigune eder bat dago herrigunera iritsi aurretik. N. URBIZU

» INKESTA

1. Nondik dator kunplituaren goitizena? 2. Gustatzen al zaizu ezizen hau? Zer sentitzen duzu hori esaten dizutenean?



«Goitzen hau hotza, inperzonalak iruditzen zait»

Ane Miren Uranga
DIETISTA

1. Ez dakit nondik datorren ezizen hau, ideiarik ere ez...
2. Egia esan ez zait gehiegi gustatzen, hotza da, inperzonalak. Goitzen honekin nirekin behintzak jentideak ez du erabili brometan, ez dute horretarako erabili. Gainera, askok ez dakite Albizturkook zein goitzen dugun.



«Inguruko goitzenak ikusita, gurea polita da»

Anjel Mari Peñagarikano
BERTSOLARIA

1. Ez dakit nondik datorren ezizena. Behin baino gehiagotan hitz egin izan dut honetaz jendearekin baina ez dugu inoiz jakin.
2. Inguruko ezizenak ikusita (el-txoak, akerrak, lapurrak, tipulak)... polita da, gustura entzuten den horietakoa. Txarra behintzat ez da, inondik inora.



«Gustatu edo ez gustatu, jarritakoa da»

Juan Ugartemendia
ALKATE OHIA

1. Ez dut arrastorik, nondik datoren goitizena. Aita zenari entzun izan nion, baina nondik datorren...
2. Gustatu edo ez gustatu jarritakoa da. Ez da oso polita baina bes-tetan akerrak, makilak, elbiak dira, eta ez dakit zein den txarragoa. Herrian honekin bromak egiteko ohiturarik ez da izan, nik dakidala.



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat
2 sarrera pare ditu

sarrerak eskuratzeko deitu:
943-65 56 95
harpidedun kodea eskura duzula

Jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu. Saridunen izenak urtarrilaren 29ko egunkarian.

Uzturpe Ikastolaren Kultur Astearen baitan



Sua

ikusizuna
Alurr dantza taldearen eskutik



Urtarrilak 30 • ostirala • 22:00etan • Ibarra Belabieta Kiroledegian

harpidedunentzat
TXOKOA hitza

LABek manifestariora joateko deialdia egin du

Lan istripuak » Sindikatua lan istripuak salatzeke kalera aterako da gaur 12:00etan Donostian; iaz 112 lagun hil ziren lanean.

ERREDAKZIOA

LAB sindikatuek euskal hiriburuetan manifestazioak egingo ditu gaurkoan, Euskal Herrian ematen diren lan istripuen inguruko datuak ikusita, egoera salatzeke. Eskualdeko LABek ere bat egin du deialdiarekin eta «langile guztiak parte hartzeraz» gonbidatu dituzte. Gipuzkoarrentzat manifestazioa Donostiako Amara auzoko Kultur Etxetik abiatuko da, 12:00etatik aurrera. Lan Delegaritzaraino egingo dute ibilbidea.

Sindikatuaren ustez, «Euskal Herria bezalako herri txiki batean eskandalu hutsa da enpresetan urtero-urtero izaten diren istripu, gaixotasun eta heriotza datuak». Hain zuzen, egoera hau salatunahi dute. Datuak ere eman dituzte sindikatukoek, argudio honen aurrean: «Urtez urte 135.000 istripu inguru, 100 heriotza baino gehiago, lan gaixotasun baten ondorioz hiltzen diren milaka langile eta bizitza osorako ezintasun iraunkorraz edota beso, hanka, esku edo beste-

lako gorputz adarren bat anputaturik gelditzen diren langileak izaten dira gurean».

«Borroka ezazue zuen osasunaren alde»

Manifestazioan parte hartzeko gonbitearekin batera langileei mezu argia igorri diete: «Lan zentroetan egunez egun zuen osasunaren alde borroka zaitzeten, ez diezaiezuen utzi, are gutxiago memento hauetan, gutxi batzuei gure biziaz kontura aberasten».

Halaber, langileen biziaren prezioa «ondo baxua» dela salatu du LABek: «Patronalaren poltsikoak betetzen duen heina, besterik ez». Euren ustez, «ahalik eta irabazi gehien, ahal den eta denbora laburrean lortu nahi dute, hau da, eredu ekonomiko hauxe da langileok gaixotzen eta hiltzen gaituen».

Azken biktima, herenegun

Herenegun 48 urteko behargina hil zen Irunen uralita hautsi eta 10 metrotik erori ondoren. Honekin lau egunean Euskal Herrian hil den bigarren langilea da. LABen datuen arabera, hiru minutu eta erditik behin lan istripubat izaten da. Sindikatuek emandako datuen arabera, gainera, 112 lagun hil ziren, 2007an baino 13 gutxiago.

G Gutunak

Sozialismoa eta Ibarretxeren aholkulariaren gezurrak

Lehendakariaren aholkulari ekonomikoa baino gehiago da Jose Mari Agirre. Urtarrilaren 24ko HITZAn esandakoari erreparatu besterik ez dago EAJ, euskal enpresari eta kapitalismoaren interesen defendatzailea dela. Ondo nabaritzen zaio ez duela ERE edo kalera-keta baten arriskurik, bere nagusiek ederki ordaintzen diotela. Flautista ordaintzen duenak aukeratzen omen du melodia eta Agirrek ondo baino hobeto jotzen du euskal enpresariaren kantua.

Ibarretxek etxeko lanak eta ariketak ondo egin dituela esan zuen. Bai noski, Ibarretxek eta Eusko Jaurlaritzak ondo bultzatu dituzte azken urteetan, langileen soldaten jaitsiera, langileen kaleraketen merketzea, pentsioen aurkako erasoak, zerbitzu sozialen pribatizazioa eta sistema finantzarioaren desregulazioa, espekulazio masiboarengainez eta etxebizitzaren prezioa zeruetaraino bidaliz. Orain ere, krisi garaian, enpresariaren EREak onartzen ari dira langileen kaltetan, denon poltsikotik enpresariari izugarriko diru laguntzak ematen zaizkien bitartean. Ikaragarriko irabaziak izan dituen Arcelor multinazionalari, Eusko Jaurlaritzak 50 milioi oparitu zizkion iraillean, eta Arcelorrek ondoren 500 langile az-

pikontratatu eta aldirakoren kaleraketa prestatu du.

Ez zuen izan lotsarik langabezia oraindik «ia teknikoa» dela eta 2009an 10.000 langabetu gehiago egingo direla esateko. Ez du irakurri oraindik azken hiru hilabetetan 24.300 langabetu gehiago daudela Hego Euskal Herrian? Agirreraren «ustez» gainera, antzerkia ondo daki egiten, ez dago kapitalismoa ez den beste sistemarik amesten duen europarririk. Ondo daki europar askok, eta krisiaren ondorioz ere gehiago, sozialismoa aldarrikatzen dutela alternatiba bezala. Behin eta berriz esan zuen komunismoak eta sozialismo errealek porrot egin dutela. Kapitalismoaren defendatzaileak, orain dela mende bat baino gehiago hasi ziren sozialismoak ez duela balio esaten. Baina zergatik gastatu du orduan burgesiak, horrenbeste indar eta diru orain dela mende bat baino gehiago «hilda dauden» ideia eta alternatibak erasotzen? Ez da harriztekoa sozialismoari beldurra izatea eta gutxiago garai hauetan. Ondo dakizue, gero eta langile gehiagok alternatiba horren beharra aldarrikatuko dutela.

1989an porrot egin zuena ez zen sozialismoa izan, komunismoarekin zerikusirik ez zuten estatu burokratiko ustelduen erorketa baizik. Baina «kapitalismoari esker», ekialdeko herrialdeetako biztanleriaren bizi baldintzak ikaragarri okertu dira. Horretaz ez duzue

txintik esaten. Txintik ez Mosku, Budapest hiriburuetan umeak kaleran miserian bizitzen direnari buruz, ez langabezia, pobrezia eta gosearen gorakadari buruz. Egia gordez, EB parasidua dela esan zuen Agirrek. Zergatik eman dira orduan azken urteetan 10 greba orokor Grezian, 2 greba orokor Belgikan, Italian, Frantzian, Alemanian...? Ahaztu egin zaizu Europan 30 milioi baino gehiago pobrezian bizi direla? Nolaz esan zenituen horrenbeste gezur hain denbora gutxian?

Krisiaren arduradun harropuzkeria, kontrolik eza, korsumismoa, inbiliarriak eta erakunde finantzarioak jarri zituen. Hala, kapitalismoari muturra garbitzeko aukera topatu zuen. Gaurko krisia ordea, kapitalismoaren funtzionamenduari dago lotuta, arazoa da fabrikak, bankuak eta latifundioak gutxi baturaren direla, gutxi baturaren irabazi milioi dunek mugitzen dutela ekonomia, arazoa da gutxi baturaren lujoak gehiengoaren prekarietatera, langabeziara, miseriara eta goserara kondentzen duela. Eta arazo hauek konpontzeko modu bakarra kapitalismoarekin bukatzea eta gizarte sozialista bat eraikitzea da. Horregatik defendatuko dugu kapitalisten espropiazioa pulpituan, kalean eta behar den leku guztietan.

Ibon Artola (Anoeta). Euskal Herria Sozialista aldizkariako kidea



harpidedun izateak badu saria

① bi lagunentzako **afaria**

Asteasuko Sarasola sagardotegian



TOLARE SAGARDOTEGIA

② 1936ko gerrako oroitzenak tolosaldean eta leitzaldean

— **liburua** —



— 5 ale —

③



Hitzalean
liburua

— 5 ale —

④ lau lagunentzako **afaria**

Ibarrako Denak tabernan



DENAK
taberna

parte hartzeko deitu: **902-82 02 40** telefono zenbakira [harpidedunen kodea eskura duzula] aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara.



Uzturpe ikastolak 2 urtetik hasi eta 16 urte bitarteko haurren heziketa ibilbidea bermatzen du. HITZA

Guraso zein seme-alabei zuzendutako Kultur Astea antolatu du Uzturpek

Ibarra » Haurren heziketa «eskolen eta gurasoen arteko elkarlana denez», azken hauei zuzendutako ekintzak antolatu dituzte.

REBEKA CALVO

Ibarrako Uzturpe ikastolak urtero antolatu ohi duen Kultur Astea etzi hasiko da eta otsailak 8ra arte luzatuko da.

Bederatzigarren edizioa da aurtengoa eta bertan guraso zein seme-alabei zuzendutako hitzaldi desberdinak antolatu dituzte, besteren artean. «Hitzaldiak ikasturte honetan ikasleekin lantzen ari garen hainbat proiektuen harira datoz eta hizlariak irakasleekin lanean ari diren pertsona berberak dira. Familiarentzako bereziki presatua dira, proiektuak ezagutu dituzten eta, parte hartuz, etxetik ere laguntzeko aukera izan dezaten», esan du zentzu honetan Jokin Zugastik, ikastolako zuzendariak.

Hitzaldiak

Horiek horrela, otsailak 2, astelehenean, *Nola sustatu irakurzaletasuna etxean*. Iruditik hitzera hitzaldia eskainiko du Yolanda Arrieta idazleak. 3-8 urte bitarteko umeen familiei zuzendutako hitzaldia da eta informazio teorikoa eredu praktikoenkin eta oinarriko bibliografiarekin osatuko du. Hi-

tzaldieren helburua, besteren artean, gazteen arteko irakurzaletasuna bultzatzea da horretarako gurasoak ere heziz.

Hurrengo egunean, otsailak 3, 0-3 urteren arteko haurren txanda izango da. Horretarako Gasteizko haur eskoletako esperientzia handiko hezitzaile bi ekarriko dituzte, Montse Meana eta Lourdes Garijo. Biak ala biak urte asko daramatzate *Estilo desberdina duen haurreskola* izeneko zentroa garatzen, hau da etxea eta eskolen arteko zubi funtzioa egiten duen zentroa, eta bertan lan eginez gustuko duten haurreskolaz hitz egingo dute. Izan ere, Ibarrako Kukumiko haurreskolako eta ikastolako hezitzaileen elkarlanean jarraitzen dute

eta honen berri eman asmoz ere antolatu dute hitzaldia. Horrela bi guneetan «oinarri pedagogiko berean hezitze asmoz», esan du Zugastik.

Azken hitzaldia gaztetxoengurasoei zuzendutakoa da eta eurek eskatuta antolatu dute, gainera. Askagintzarekin elkarlanean ari den Anduiko adituek emango dute eta ikastolak garatzen duen Osasun Proiektuaren barnean kokatzen da. Egitasmo honetan sexua, elikadura eta droga gaiak jorratzen dituzte eta azken honen ingurukoak izango da. Hitzaldia otsailaren 5ean izango da eta droga-menpekotasunaren prebentzio programaren barnean kokatzen da.

Aipatu hitzaldiak Benito Izagi-

» EGITARUA

Hilak 30, etzi

■ **Belabieta Kirolegian.** Alurrun Suaren emanaldia 22:00etan.

Hilak 31, larubata

■ **Kirolegian.** Haur Festa 0-12 urte arteko umeentzako 11:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 18:00etara. Ondoren txokolatada izango da plazan.

Otsailak 2, astelehena

■ **Benito Izagirre kultur etxean.** Yolanda Arrieta idazleak *Nola sustatu irakurzaletasuna etxean*. Iruditik hitzera hitzaldia eskainiko

du 18:00etan. 3-8 urte bitarteko umeen familiei zuzendutako hitzaldia da.

Otsailak 3, asteartea

■ **Kultur etxea.** Montse Meana eta Lourdes Garijo Gasteizko haur eskoletako hezitzaileek 0-3 haurren heziketa estilo berri bat hitzaldia eskainiko dute 18:00etan.

Otsailak 4, asteazkena

■ **Kaleetan zehar.** Santa Ageda bezpera dela eta kantuan aterako dira, 14:30etik 16:30era.

rre kultur etxean izango dira, elbidunak dira eta hauek irauten duten bitartean ludoteka zerbitzua eskainiko du Uzturpek gurasoak bertaratzeko aukera izan dezaten, hori bai, aldez aurretik deitu behar dute izena emateko.

Betiko «klasikoak»

Baina Kultur Asteak badu bestelako ekintzarik ere, «klasiko» bihurtu direnak.

Horiekako bat, urteroko ikusizuna da, aurtengo herriko Alurr Dantza Taldea izango da protagonista, izan ere, bere azken ikusizuna, *Sua*, eskainiko dute etzi. Urtero antolatzen duten eta arrakastatsua itzela izaten duen beste «klasiko» Haur Festa da. Larunbat honetan izango da eta Belabieta kirolegian, 11:00etatik 13:00etara lehenik eta 15:30etik 18:00etara ondoren. Bukatzerakoan txokolatada izango da San Bartolome plazan. Azken ekitaldia mendirteera da, aurtengo Zeraingo meategietara izango dena.

Egitaruak, gainera, Emeterio Arresen irailan zabalduko erai-kin berriaren inaugurazio ekitaldia ere biltzen du, otsailak 6an izango dena. «Ekitaldi xumea egingo dugu, izan ere irailetik irekita badago ere herritar askok ez dute horren berri eta gerturatzatzen direnei eraikin berria zabaldu eta erakutsiko diegu», esan du ikastolako zuzendariak.

Matrrikulazio epea

Era berean, ikastolako 2009-2010 ikasturterako aurrematrrikulazio kanpaina otsailaren 2tik 13ra iraungo duela ere jakinarazi dute. Uzturpen garatzen diren proiektu pedagogikoak 2 eta 16 urte bitarteko haurren ibilbidea bermatzen du eta informazio gehiago nahi duenak bihar 18:00etan Emeterio Arreseko eraikinean egingo duten Ateak Zabalik saiora joateko deia luzatu dute. Saioak irauten duen bitartean haurrak hezitzaileekin uzteko aukera ere izango da.

Otsailak 5, osteguna

■ **Kultur etxea.** Askagintzak nerabeek dituzten familiei zuzendutako *Drogomenpekotasunaren prebentzioa familian eta ikastetxean* hitzaldia eskainiko du.

Otsailak 6, ostirala

■ **Emeterio Arrese.** Emeterio Arrese plazan egindako eraikin berria inauguratuko dute 19:00etan.

Otsailak 8

■ **Mendi rteera.** Zeraingo meategietara irteera.

Zuzenketa. Atzoko egunkariko azken orrialdean Ibarrako Bartola Batzordeak pasa den ostiralean antolatutako Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikusizunearan 900 pertsona bildu zirela jarri genuen, baina ez da horrela, 700 pertsona bildu ziren. Barkatu eragozpenak.

3-6 galdu zuen Lauburuk EHUn kontrako partidari

Ibarra » Donostiako EHUK irabazi ondoren partidako hiru puntuak eskuratu eta aurrea hartu dio Ibarrari sailkapenean.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Lauburu areto futbol taldeak 3-6 galdu zuen larunbatean Belabieta kirolegian jokaturako partidari. Donostiako EHUn kontrako derbia izan zen eta ibararren ustez zorte txar itzela izan zuten.

Donostiako taldeak eraman zituen etxera partidako hiru puntuak, zorte onaren ondorioz, ibararren aburuz. Ondorioz, EHUK aurrea hartu dio Laubururi sailkapenean.

Ibarrakoak erraz iritsi ziren donostiaren ate ingurura, baina gero ez zuten jokaldia era egokian bukatzen asmatu. Partida, hala ere, erritmo onean hasi zen; bi taldeak ondo hasi ziren, nahiz eta txartel hori asko bildu zituzten Laburukoek. Lehen zatiko 9. minutuan iritsi zen lehen gola, Donostiako EHUKoa, hain zuzen.

Zelaieratu ziren Ibarrako lehen bost jokalariek Igor Zabalo, Ion Ander Karrera, Ion Garmendia, Loitzun Sanz eta Aitzol Oyarbide izan ziren, baina David Pradosek, Victor Silvak, Ruben Etxartek eta Unai Labakak ere jokatu zuten. Pradosek sartu zituen, gainera, Ibarrako bigel eta bestea Ruben Etxartek sartu zuten.

Bestalde, talde bietako jokalariek Orioko Taberna taldeko Jose Maria Gonzalez Argibay gaztea omendu zuten. Jokalaria orain gutxi zendu zen auto istripu baten ondorioz.

Laburrak

'Generacion' filma gaur, Gaztetxean 21:00etan

IBARRA » Autoeskola Antikapitalistak film emanaldia antolatu du gaur Ibarrako Gaztetxean 21:00etan. *Generacion* pelikula eskainiko dute, non, naziak Polonian sartu zirenean hauei aurre egitea erabaki zuen gazte talde baten istorioa kontatzen den.

Tai Chi Chuan ikastaroa antolatu dute Belabietan

IBARRA » Ibarrako Belabieta kirolegian Tai Chi Chuan ikastaroa antolatu du astelehenean eta ostegunetan. 09:00etatik 10:30era eta 20:00etatik 21:30era iraungo du. Izena emateko 943 67 15 44 telefonora deitu behar da.

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

elketa
jatetxea

- Egunero zabalik
- Eguneroko menua
- Sagardotegiko menua
- Karta

Hernialde 943 65 39 92



Hainbat herritar eskean, beste hainbat Aurrera Elkartearen bazkaltzen eta haurrek Karrapen txokolataren zain. A. IMAZ



Txikienak ere mozorroturik txokolatadan. A. IMAZ

Inauteriak Leitzatik Aresora doaz

Inauteriak » Aurtengo Ihotek atzo amaitu ziren Leitzan. Eguraldia lagun ez izan arren, goizean goizetik jaiak ez zuen etenaldirik eduki.

ASIER IMAZ

Euskal Herri guztia errekei begira zegoen bitartean, Leitzan aurten go Ihoteen azken eguna ospatu zuten atzokoan.

Goizean goizetik baserrietako eskean hasi ziren azken ausartak Erasote auzoan barna. Herenegun

egin bezala, atzokoan 20 lagun inguru, baserrietik baserrira puske biltzen ibili ziren euripean.

Bazkaria, kalejira eta musika

Eskera joan ez ziren beste hainbat herritar Aurreran elkartu ziren bazkaltzeko asmoz. Ondoren de-

nak Elkarteetan bat egin zuten. Arratsaldean Atsaureak aterata ziren Karrapera, maskuri eta guzti, txikien gozamenarako.

Ihoteei amaiera emateko musika aukeratu zuten leitzarrek. Alde batetik Gau-Bela taldearen kontzertua hasi zen Karrapen 19:00etan. Atsedenaldirik baten ostean 23:30ean jarraitu zuten azken emanaldiarekin.

Bestalde, Incansables txarangak bere azken doinuak jo zituen atzo gauean eta erretiratzeko gogorik

ez zuenarentzat, 03:00etan, DJ Gutiren emanaldia aurreikusten zuten egitarauak.

Haurren eguna

Txikienak 11:30ean *Musika tresnen fabrika* ikusteko aukera eduki zuten, Sointek Produksioak-en eskutik.

Arratsaldean kalejira egiteko asmoa zuten Incansables txarangaren laguntzarekin baina eguraldia medio, zuzenean Karrapen bilatu zuten babesa. Bertan, txokolate

beroa hartu zuten txikienek. Ondoren, musika eta gogoki festa etorri zen.

Aresoko Inauterien txanda

Behin Leitzako Ihotek amaitu ondoren, Aresoren txanda iritsiko da. Bertan urtarrilaren 30ean, etzi, hasiko baitira Inauteriak. Antolatzaileak herritarrak mozorrotu daitezkeen oharra zabaldu dute, leiho eta balkoiak apaintzeko ere eskatu dute. Leitzan hase gelditu ez denak Areson edukiko du jarraipena.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 032. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 034. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Ibarra.** Alurr Dantza Taldeak *Sua* ikuskizun berria aurkeztuko du urtarrilaren 30ean, 22:00etan, Bela-bieta kiroldegian, Uzturpe Ikastolak antolatuta duen Kultur Astearen barruan. Sarrerak salgai daude Uzturpe Ikastolan, Karlatz eta Zubiaurre tabernetan eta Tolosako Orbela eta Raku tabernetan.
■ **Ibarra.** Inauterietarako karroza eta konpartsetan izena eman daiteke Kultur Etxen 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.
■ **Amezketak.** Amezketa ikastolan ibili zirenek elkartzeko asmoa dute, andereño izan ziren Maritxu, Joxepi eta Kororekin Behartzana jatetxean bazkari bat eginez. Harremanetan jartzeko: 943 65 05 99 (Arantxa), 669 47 94 93 (Joseba), 943 24 00 21 (Itxaso).

Erakusketa

■ **Alegia.** Marce Tenaren begiei buruzko margolanak ikusgai asteartetik igandera bitarte Jubilatuen tabernan. Bizi-biziak eta denetan begia da jorratzen duen gaia.
■ **Amasa.** Egoitz Bengoetxeak eta Gorka Lopezek Alpeetan ateratako argazkien erakusketa Amasako kultur etxean, *Alpeetako argiekin jolastuz* izenburupea.
■ **Tolosa.** Ana Jesus Ansorena tolosarraren buztin egosi artelanak ikusgai Lanbroa tabernan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Oria ibaiak abiadura handia hartu zuen atzo euriteen ondorioz; Villabonan, esaterako, udaltzainek autoak kendu zituzten Ula gunean eta hainbat garaje ere urez bete ziren Txermin auzoan.

Erotu beharrean...

ERREDAKZIOA

Barealdia izaten omen da ekaitzaren hurrengoa. Badiurudi negu honetan ez dela horrelakorik beteko, pasa den asteburuan albiste izan zen zikloaren ondorengoa barealdia ez baino euria izan baita.

Zikloiak hainbat arazo sortu zituen gunean — Iruran, Anoetan eta Ibarra auzo batzuetan, esaterako, argindarririk gabe geratu ziren — eta euriak ere berea egin zuen atzokoan. Oria ibaia asko hazi zen eta abiadura handia hartu zuen eskualdetik.

Hain zuzen, Villabonan gainezka egiteko 40 zentimetro falta zitzaizkion eguerdi partean. Ondorioz, udaltzainak Kale Berriko Ula gunean aparkatuta zeuden autoak bertatik kentzeko lanean aritu ziren. Arratsaldean garaje batzuk urez bete ziren Txermin auzoan.

Halaber, Hernaldera igotzeko bidegurutzean errepeidea moztu egin zuten errekek gainezka egitea ekiditeko.



Villabonan Oria ibaiak ia gainezka egin zuen Kale Nagusian. IMANOL GARCIA

Hainbat Ikastetxetan ere izan zuen eragina euriteak, arratsaldean eskola batzuk bertan behera gelditu baitziren, Zizurkilen, esaterako.

Garraio publikoan ere arazo batzuk izan ziren.



Tolosan ere abiadura handia hartu zuen ibaiak. NEREA URIBIZU



Hernaldera igotzeko errepeidea moztu egin zuten. IG

A Agurrak



Urte askoan!

Asier! Ondo ospatu eguna, egunerok ez dira 31 urte betetzen eta! Je je. Muxu handi bat! Afaria noiz?



Urte askoan!

Asier! Aurten ere zure aitaren tortilla goxoa jango al dugu? Ondo pasa eguna!



Zorionak!

Garazi Azpiroz Izagirre. 2009ko urtarrilak 22an jaiotako Bedaiotar berria.

OKINDEGI / KAFETEGIEN SEKTOREAN LIDERRA DEN ENPRESAK NEGOZIO BERRITZAILE ETA KONTRASTATUAREKIN, ERRENTAGARRITASUN HANDIAREKIN LEITZAN LAISTER EGINGO DUEN IREKIERARAKO HARREMANETAN JARRI NAHI DU:

- BEREZKO NEGOZIOA
- KUDEATU NAHI DUTEN PERTSONEKIN
- DENDAKO ARDURADUNEKIN
- SALTZAILEEKIN

Interesatuak harremanetarako gutuna eta CVa bidali ondoko helbidera: posta kutxa 54 - 20115. Astigarraga